

# APNABI AUTISMO BIZKAIA (ASOCIACIÓN) - ADVANCED SERVICES IN MOBILITY, S.L. (ASIMOB):

## Autismoa duten pertsonen



ibán Illate Esteban  
iban@apnabi.org  
688655396

<https://www.apnabi.eus/?lang=eu>



**Jarduera:** APNABIk AEN (autismoaren espektroko nahasmendua) duten pertsonen ongizate komuna sustatzen du, komunitatean sartzea eta pertsona horien gizarte- eta lan baldintzak normalizatzea. Horretarako, hainbat jarduera eta proiektu gauzatzen ditu; kasu honetan, ASIMOB startuparekin lankidetzan.



**Sektorea:** Gizarte Zerbitzuetako beste jarduera batzuk



**Enplegatutako pertsonen kopurua:** 300



**Lokalizazioa:** Sabino Arana, 69, 48012, Bilbao - Bilbo, Bizkaia

**EUSKADI mailako berrikuntza ERRADIKALA****Zergaitik izango litzateke berrikuntza kasu praktiko bat?**

Enpresa-behar bat (ASIMOB startup teknologikoarena) eta gizarteratzeko zailtasunak dituen kolektibo baten egokitzapen-trebetasunak harremanetan jarri dituen ekimena delako. APNABiren eta ASIMOBen arteko lankidetzak gizarrean eragin handiagoa eragiten duen aukera bat da; izan ere, AEN duten pertsonen gizarte-balio handiko lan-jarduera eskaintzen die, eta horrek ahaldu eta lan munduan sartzea ahalbidetzen die. Gainera, kolektibo horren ezkutuko trebetasunak ikusarazten eta azaleratzen ditu enplegarritasuna ahaldu eta hobetzen duten zereginen bitartez.

**KASU PRAKTIKOARI BURUZKO INFORMAZIO ZEHATZA**

APNABI Autismo Bizkaia 70eko hamarkadaren amaieran sortu zen irabazi-asmorik gabeko elkarte da. Interes publikokotzat jotzen da, Bizkaian autismoaren espektroko nahasmendua (AEN) duten pertsonen familiak biltzen ditu, eta erreferentziako erakundea da bere jardun eremuan.

APNABIk 1.300 familia eta 300 profesional baino gehiago biltzen ditu, eta, betiko espirtu berarekin eta erakundeen eta beste eragile batzuen laguntzarekin, zerbitzu-sare zabal bat eta jarduera-programa bat eskaintzen ditu. Horien helburua da bermatzea AEN duten pertsonen beren bizi-ziklo osoan zehar erantzun integrala, banakakoa eta kalitatezkoa jasoko dutela.

Elkarteak lan egiten du AEN duten pertsonen eskubide guztiak betetzen direla bermatzeko, eta beren bizitza-proiektua garatzen laguntzeko; helburu hori lortzeko, laguntzak eman eta aukerak sortzen ditu, eta pertsona horiek bidezko gizarte solidario batean txerta daitezen sustatzen du ere, eskubide osoko herritarrak baitira.

Alde horretatik, azpimarratzekoa da AEN dutenetako batzuek gaitasun bereizgarriak dituztela, hala nola kontzentrazio-maila handia eskatzen duten zereginak egiteko trebetasuna edo eremu teknologikoko tresnekin elkarrengatik trebetasun berezia eta desberdina. Horretatik, teknologiaren arloaren barruan, zenbait enpresak berriaz kontratatzen dituzte AEN duten pertsonak zeregin zehatzak garatzeko. Hala ere, Europako herrialde batzuetan funtzionatzen ari den lankidetzak eredu hori ez zen oraindik hona iritsi.

APNABiren helburua, hasiera-hasieratik, enplegu-aukerak bilatzea izan da, egoera horri buelta emateko. Horretarako, elkarteak lankidetzan aritzen da hainbat arlotako enprekin AEN duten pertsonak lan-munduan sartzeko, ekimen honetan ASIMOB (Advanced Services in Mobility SL) enpresarekin batera egin duen bezala. ASIMOB adimen artifizialean oinarritutako teknologia berriak erabiltzen dituen startup bat da, errepideen segurtasuna ikuskatzeko zeregin batzuk automatizatzeke eta, horrela, errepideen kontserbazioa eta segurtasuna hobetzeko. Era berean, APNABIn ekintzailatza-ekimenekin ere ari dira lanean, pertsonen beren negozioak sor ditzaten hainbat ekimenen bidez: BBK Gizarte Ekintza, EkiTEA Proiektua AEN duten pertsonen ekintzailatzarako, BEAZ, C2B -Campus To Business, ONCE, eta abar. Ekimena oso esperientzia positiboa izan da, eta ASIMOBek ondo baloratu du: adierazi dutenez, AEN duten pertsonak laneratzeari esker, proiektu handizaleagoi ekin ahal izango diete eta zerbitzuak azkarrago zabaldu ahal izango dituzte.

**Aurrekariak**

AEN duten pertsonen buruzko Europako azterlanen arabera, autismoaren esparruan, pertsonen %70-90ek ez dute lanik edo okupaziorik eta haien lan-aukerak oso mugatuak dira. Hortaz, APNABIk denbora luzea zeraman AEN duten pertsonen aukerak zabaltzeko esparru bila, haien trebetasun eta gaitasunetan oinarrituta.

Era berean, ASIMOB startupak pertsona kualifikatuak behar zituen bere algoritmoak entrenatzeko irudi ugari prestatzeko. Eskulan hori oztopo zen bere garapenen aurrerapenean.

**Erronka**

APNABIk AEN duten pertsonen enplegarritasuna lortu nahi du, lan duina eta pertsonak ahaldu dituen. Horretarako, erronka nagusia da euren ezaugarrietara egokitzen diren lanpostuak eskaintzen dituzten enpresa gehiago lortu eta lanpostu gehiago sortzea, euren sarrera ekonomikoak hobetzeko gai izan daitezen.

ASIMOBen erronka, berriz, irudi egokien dataseta izatea da, Ikuspen Artifizialeko algoritmoak beren beharren arabera entrenatu ahal izateko.

**Ekintzak**

1. APNABI eta ASIMOB lehenengo aldiz jarri ziren harremanetan, elkar ezagutu zuten eta elkarrekin zer proiektu mota gara zezaketen aztertu zuten.
2. Lanerako ikastegiko prestakuntza desberdinak gauzatu zituzten eta entrenamenduak egin zituzten lanbide- eta egokitzapen-laguntza gisa, gehienek ez baitute titulurik. Horretarako, hitzaldiak eman eta lanpostuen eskuliburuak egokitu ziren. Ezagutza bereganatu ondoren, saiakuntzak egin zituzten 10 pertsonarekin.
4. Proban, APNABiren eta ASIMOBen lan-fluxuaren kudeaketa eta ekoizpen-estandarra ikuskatu ziren.
5. Pertsona bakoitzaren banakako jarraipena.
6. Emaitzak positiboak izan zirenez, enpresa gehiago erakartzeko prozesuari ekin zioten.

7. Azkenik, enplegu arruntera igaro eta, beharrezkoa izanez gero, autoenplegua edo ekintzailtza sustatzeko aukera aztertzen zen.

## Lortutako emaitzak

- ASIMOBekin egindako lehen lanen ondorioz, APNABlren laneratzeko tailerrak arlo berri bat du, AEN duten pertsonen lan-aukerak eskaintzeko. Aspaldi egiten ziren eskulanez gain, adimen artifizialerako datuak prestatzeko arloan lan egiteko aukera.
- Praktikak egin ondoren, 2 pertsonak lana lortu dute eta 1ek ekintzailtza-bideari ekingo dio.
- Jarduera honek garapen profesionaleko ildo bat irekitzen du: AEN duten pertsonak ildo horretan sar daitezke eta trebetasun paregabeak eskain ditzakete.
- 2020ko urtarrilaz geroztik, ASIMOB etengabe ari da APNABlren zerbitzuak kontratatzen. Zerbitzu hori beste enpresa batzuetara zabaldu da, eta APNABl prestakuntza-ekintzak gauzatzen ditu beste erakunde batzuei zerbitzua eman ahal izateko.
- Gizartean aintzatespen eta parte-hartze handiagoa lortzea, eta, horretarako, beste enpresa batzuen interesa piztea.
- Proiektu honetan lan egin duten pertsonen ahalduntzea.

---

## KASUAREN KATEGORIZAZIOA

---

### Berrikuntza-eremuak:

- Prozesua: Antolakuntza eta pertsonak.

### Aukera arloak:

- 1 - Gizarte eraldaketa eta konpromisoa
- 2 - Eraldaketa teknologikoa/digitala

Iban Huarte, APNABI LANeko Gizarte eta Lan Arloko zuzendaria

"Pertsona guztiok ditugu bereizten gaituzten trebetasun bereziak, baita AEN dutenek ere, eta enpresek, kontratazioak egitean, beti hartzen dituzte kontuan, Oraingoan ere hala izan da; izan ere, AEN duten pertsonak zeregin edo patroir errepikakorretan duten interesa ezin hobeto egokitu baita ASIMOBen egungo beharretara".

Estibaliz Barañano (ASIMOBeko zuzendari nagusia)

"APNABIren lana funtsezkoa da gure katalogoa zabaltzeko, eta funtsezkoa izango da, adibidez, gure negozioa beste herrialde batzuetara zabaltzeko nahi dugun egunean".

Innovation Index Score: ★★★★★☆

Lerrokatze estrategikoa: ★★★★★

Kreatibitatea: ★★★★★

Kolaborazioa eta hibridazioa: ★★★★★

Sistematizazioa: ★★★★★

Eraginkortasuna emaitzetan: ★★★★★

Efizientzia emaitzetan: ★★☆☆★★

Erreplikagarritasuna eta transferigarritasuna: ★★★★★

★

Eragina: ★★★★★

Aintzatespena: ★★☆☆★★